



Lebarietazpikoa etxebizitza

Aldaerak: Apraizena / Txirloena / Txirbiena

Ahozkoa: Lebáittaspi / Apráixena / Txírbiñe / Txirlóiena



43° 10' 59"

2° 35' 53"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Lebarieta azpikoa... situada en la Cofradía de Sarria jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión de su zaguan setenta estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de una vivienda de un piso y entresuelo..."

DJE 1/137 or. (1865)

Lebarieta etxeen artean azpikoa dugu honako hau, *Lebarietazpikoa* alegia. Bizkaiko su-errolde-tan jasotzen da, XVIII. mende amaieran. *Lebarieta de Yuso* (1796) izenez agertzen da, *Lebarieta de Suso* etxetik bereizteko. Handik gutxira, *Lebarieta azpikoa* (1798, BAHP, A133/8) euskal forma jasotzen da lehenengoz, eta hortik aurrera, dokumentu guztietan aldaera hori mantendu duko da; *Lebarieta Azpikoa* (1825, PE/1825) eta *Lebarieta-azpikoa* (1910, BUA, RU) ditugu horren adibide. Auzotarren artean, *Lebáittaspi* da formarik erabiliena, nahiz eta jabearen izenarekin lotzen diren ahozko izenak ere nabariak izan, besteak beste: *Apráixena*, *Txírbiñe* eta *Txirlóiena*.

Aldi desberdinetan eraikitako baserria da. Izan ere, XVI. mendeko silarriak nahasiak agertzen baitira beranduagoko harlangaitzezko hormetan integratua, edo ganbara aldeko egurrezko egitura, hau ere ondoren egindakoa, XIX. mendekotzat ere har daitekeena. Etxea erripan eraikita dago eta berari egokituta, oro har, luzenka izanik. Fatxada nagusian ere antzeman daitezke aldi desberdinetako zatiak, harriaren tailari erreparatu ezker, atean zein leihoetan. Ganbarako hormak zurezko egituraz burutu ziren, tarteko adreiluzko hormekin, enfoskatu eta pintatuta. Teilatua bi isurkitakoa da.

toponimia

Lebarietabarria izenaren inguruan azaldutakoari gehitu (**Ikus Lebarietabarria**) behar zaio, kasu honetan Lebarieta hitzari erantsitako -azpiko erantsi zaio, eta horrek beheko etxea dela argitzen digu.